

**VILLA CARMENENA**  
D MAILA

**EGIA GALTZADA ZAHARRA 52**



Lukas Aldai, 1919.

**Deskribapena**

Etxearen bolumen nagusia oinplano errektangularrekoa da, eta 45°ko malda duen isurki biko estalki handia du. Horixe da pieza protagonista, fatxada nagusian dauzkan bi horma pikoengatik eta ia-ia plano berean dauden bi txapitula jakobinoengatik. Horma piko bietan errepikatzen da neotudor bilbadura duten erduetako motibo ezaguna, oriel window-ari teilatueko solairu hegaldunarekin ematea akabera alegia, bilbadura baten bitartez apaindutako itxiturarekin. Atzealdeko fatxada ez dago horren zainduta, eta atal erantsiren bat ere badauka. Partzela hau Egia Galtzadako ilara baten hasiera da, eta bidegurutze batean dago; horrenbestez, albo fatxadak balio berezia du, orientazio hori edukitzeagatik.

**D mailako babes erregimen espezifiko**

- 1.- Babesetik kanpo utzitako fatxadako elementuak edo zatiak: atal irtenak.
- 2.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: bilbadurak, zurezko elementuak eta estalkiak.
- 3.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: jasodurarik gabe.
- 4.- Nahitaezko lehengoratzek: ez.